

ARABAKO ELIKAGAIEN BANKUA

BANCO DE ALIMENTOS DE ARABA

# IRAUNKORTASUNA

## 2022

TXOSTENA

# AURKIBIDEA

*“Egunero hondar eskukada bat hartzen baduzu, mendi bat osatuko duzu”*


EZAUGARRIAK
Gure izatearen funtsa harilkatzen dutenak

PERTSONAK
Ondo antolatutako giza taldea

BALIABIDEAK
Arabako gizartea laguntzaile dugula

2022ko BILKETA ERRALDOIA
azaroaren25-26an

BANAKETA
Nortzuk dira gure onuradunak

LORPENAK
Asko eginda eta asko egiteko

ERANSKINAK
Ustiapen-kontuak
Asko eskertzeko
Bazter solidarioa




# IRAUNKORTASUNA bide-argitzaile

Kalkutako Ama Teresari egotzitako aipu baten arabera, “argiontzi bat beti piztuta egoteko, ez diogu utzi behar olioa botatzeari”. Eta ideia horrek markatu du azken urtea Arabako Elikagaien Bankuan: iraunkortasuna. Harro gaude etengabe jarduteaz, erakunde honen sorrera argitu zuten helburuak lortzen jarraitzeaz. Zailtasunei aurre eginez, oztopoen gainetik saltatu edo atzean uzteko inguratu, zuzen jokatuz eta baita akatsez ere, baina beti mundua zerbait hobea izan dadin eta gosea amets txar bat besterik ez izateko gogoak bultzatuta.



Azken Urte-Txostenaren hasierako gutunean itxaropena zen hitz nagusia. Konfiantza arrazoitua zegoen koronabirusak eragindako pandemia menderatua geratzen ari zela, eta egoera ekonomiko globala hobetze bidean zegoenez premian zeudenen egunerokora ere helduko zela; izan ere, elikagai gehiago iritsiko zirela justizia sozialeko biltegi handi den Bankuaren apalategietara, zertarako eta behartsuen artean banatzeko.

Ilusio horietako batzuk bete egin ziren, baina Europaren bihotzean gerra batek eta mundu osoko inflazio neurrigabe batek milaka pertsona bota zituzten berriro bazterkeriaren mugara, hamarnaka lagun gure ondoan, bat-batean eta sarritan ustekabeko bizi-ibilbide batean kolpatutako bizilagunak. Arazo berrien aurrean, planeta mailan dimentsio izugarria dutenak, Arabako Elikagaien Bankuak, tokatzen zitzaion mailan, tinko lan egin du prezioen igoera, dohaintzen jaitsiera eta laguntzak eskatzen dituztenen kopuruaren igoera orekatu ahal izateko; etengabe borrokatu du xahutzearen aurka, kontsumitzeko egoera ezin hobean zeuden baina segur aski zabortegia helmuga zuten elikagaiak erreskatatuz, eta boluntario guztien eguneroko ahaleginez erakunde honen benetako izerdia mantendu du.

Herritarrak, enpresak eta erakunde publikoak dira Bankuaren lanaren zutabeak, eta hirurek etengabe eutsi diote laguntzen pultsuari. Beren bultzadari esker oinarrizko poltsa bera eman ahal izan da, azken hilabeteetan lehen betetako apaletan agertu den eskasiaren erdian. Supermerkatuen apalen betetze urriak eta prezioen igoera bat etorri dira larrialdi-egoeran diren pertsonen gorakadarekin, bereziki haurrak dituzten familien kasuan.

Erosketen kostu handiagoa eta aldi berean egunero banatzeko diren produktuen biltze urriagoak behartu zuten Bankuak hiru eragileei laguntza eskatzera bateragaitz ziren aldagaien oreka moldatzeko. Supermerkatuei kantitate eta kalitate nahikoko ekarpenak eskatu zitzaizkien, urte amaierara arte ordura arte emandako lote berari eusteko. Eta komunikabideen bidez laguntza-dei bat egin zen. Dei horrek oihartzun handia izan zuen, beste batzuetan gertatu den bezala, eta esker on sakonena adieraztera behartzen gaitu.

Proposatutako hobekuntza-proiektuak gauzatzea etengabekoa da Elikagaien Bankuaren funtzionamenduan, eta azken ikasturtea ez da salbuespena izan. Lehentasunezko helburuen artean zegoen umeentzako produktuak hazkunde-etapa desberdinetara moldatzea, haur edoskitzetik nerabezarora. Era berean, interes berezia jarri zen hondakinen kudeaketan eta gazteak kontzientziazio-kanpainen bidez sentsibilizatzeko. Kanpaina horiek hainbat ikastetxetako 3.300 ikaslerengana iritsi ziren. Barne hobekuntzarako eta kontsumo eta banaketa elkarteekin topaketa pertsonalizatuak egiteko nahitaezko prozesuekin batera, arreta berezia jarri zen baztertuei edo etxerik gabeko behartsuei elikagaiak emateko orduan.

Urteko Txosten honen edukia irakurtzera gonbidatzen zaituztet, bertan agertzen baitira Bankuaren 2022ko lanaren datu guztiak. Gardentasuna eta informazioa erakundearen komunikazio-politikaren oinarrizko zutabeak dira; izan ere, estatistikak eta zifrak ez daude bihotz-grinekin etsaituta, ezta gure funtsezko taupadekin eta hura osatzen duen giza taldearen izateko arrazoiarekin, baizik sarritan haren azalpenik onena osatzen dute.

Arabako Elikagaien Bankua osatzen duen familia handiari nire esker ona adierazteko unea da: boluntario finkoak eta noizbehinkakoak, Bilketa Handiaren koordinatzaileak, ehunka emaile eta enpresa laguntzaile, hainbat elkarte, ikastetxe, erakunde publiko eta pribatu, fundazio eta komunikabide… zerrenda luzea bezain zabala da bete beharreko beharrizanetan dabiltzanena.  Eskerrak guztioi. Zuek gabe, 2022an, ezin izango genituzkeen bete gure gizarteko ahulenengan pentsatuz ezarritako helburuak, zoritxarrak beste aldean jarri zituenengan, azkenean gosea garaitua izan denaren ametsetik urrun.

Etorkizuna ia beti ezezaguna da, baina gaur egun, inoiz baino gehiago, ziurgabetasunak markatzen du. Profeta faltsuen eta orainaren oinarririk gabe geroa asmatzen duten guruen denbora. Baina iraunkortasunerako uneak ere badira, harria zulatzen duen ura bezala oztopoak birrindu eta poztasun handiko amaiera lortzeko gai baita.

**Daniel Fernández Conde**

Arabako Elikagaien Bankuko Elkarte-burua



# EZAUGARRIAK

## GURE IZATEAREN FUNTSA HARILKATZEN DUTENAK

ARABAKO ELIKAGAIEN BANKUA



# Hondakinak saihestea

Duela gutxi egindako azterlan batean, **Elika fundazioak** (Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa) ondorioztatu du **Euskadin urtean 311.588 tona** alferrik galtzen direla eta kopuru horren % 28a gutxienez elikagaien zati jangarriak direla.

*(2022ko abuztuaren 9)*

# Elikagaiak eta horiek erosteko dirua jasotzea



Azken bost urteetan, hainbat jatorritako **9.200.637 kg** janari bildu dira (nekazaritza eta abeltzaintzako industrien eta supermerkatuen hondarrak, bilketa-kanpainak, Europako Funtsen programak eta FESBAL), eta **1.388.606 kg** eskuratu dira dohaintzetatik ateratako diruarekin.

# Gehien behar dutenen artean banatzea

**26.687 pertsonak** (horietatik 1.495 adingabek) elikagaiak jaso dituzte bost urte hauetan.

Horrela, **6.300 familiak** baino gehiagok lortu ahal izan dute elikadura Arabako Elikagaien Bankuaren ekarpenekin.

… eta helburu horiek lortzeko,

**nola egin dugu lan 2022an?**



# PERTSONAK

## ONDO ANTOLATUTAKO GIZA TALDEA

# ZUZENDARITZA TALDEA

**Elkarte-buru:** Daniel Fernández Conde

**Buru-orde:** Daniel Muñoz Gómez

**Idazkari:** Eva María Gil De Prado

**Diruzain:** Vicente Melón Blanco

**Batzorde-kideak:** Miguel Bengoetxea Romero, Jaime Bobadilla Sancha, Susana Corral Marrodán, José Niso Sadans

**Batzorde Iraunkorra:** Miguel Bengoetxea Romero, Jaime Bobadilla Sancha,Daniel Fernández Conde, Daniel Muñoz Gómez

# BOLUNTARIOAK LAN SAILKA

## Presidentetza Batzordea

Francisco Beltrán Urcelay, Daniel Fernández Conde,

Jesús María Garcia Morketxo

## Idazkaritza Saila

Eva Maria Gil de Prado

## Administrazio eta ekonomia saila

**Administrazioa:** Lourdes Arambarri Bengoa, Cristina Maestro Pelegrín

**Giza baliabide eta Lan Arriskuak:** Dolores Lana Zabala

**Informatika Sistemak:** Andoni Zaldúa Iñurritegi

**Kontularitza:** Isidro Bada Hernández, Vicente Melón Blanco

## Baliabide saila

**Kanpainen kudeaketak eta Bilketa Erraldoia:** Luis Mª Barruso Guilarte, Jaime Bobadilla Sancha, Jesús Mª Ciganda Iriarte, Miguel Ángel Fdz. de Matauco Martínez

**Sentsibilizatze eta zabalkundea:** Salvador Aledo Amorós, Andrés Rodeiro Louzao

## Elikagaien saila

**Jakien kudeaketa:** Susana Corral Marrodán, Rosario Díaz de Cerio Ruiz de Urra, Patxi Elorza Honrado, Fco. Javier Irisarri Lpz. de Goikoetxea, Jon Maeso Mendizabal, Daniel Muñoz Gómez

## Logistika eta biltegia.

**Garraioa:** Andoni Arambarri Uranga, Luis Ignacio Bengoa Guinea, Amelia Carpio Rey, Segundo De la Hera Garcia, Oscar Luis Heras Alzaga, José Miguel Lpz. de Añua García, Eleuteria Martin Andrés, José Antonio Munguía López, José María Macario Valencia Arboníes

**Biltegia – 5. Pabiloia:** Miguel Bengoetxea Romero, Fortunato Cibrián Castillo, Lorenzo Estivarez Fdz. de Aranguiz, Cipriano Palma Palma

**Biltegia – 6. Pabiloia:** Matías Becares Botas, Kepa Fernández de Arroyabe Abascal, Àngel García Mesanza, Jokine Godoy Cristóbal, Eunate Jz. de Aberasturi Larrea, Ana Murua Isasi, Antonio Navarro Murillo, José Niso Sadans, Angel Ruiz de Azúa Mendivil, Orlando Sanz Ruiz Carrillo

**Mantentze-lanak:** Ricardo Glz. de Zarate Fdz. de Aranguiz, Ramón Rodriguez Merinero

# ELKARTEAK SAILA

José Luis Cortazar Ibáñez, Gonzalo Dz. de Espada Fdz. de Monje, José Andrés Gabilondo Mallaviabarrena, Jesús Sanz Garbajosa, Mª Luisa García de Vicuña Ortueta, Natividad Martínez García de Vicuña, Eufemia Palacín Vaquero

**Brasil kaleko biltegiaren banaketa taldea:** Sagrario Berceal Blanco, Kanza Lharchi, Edison Peña Cortés

# 2022 URTEKO BILKETA ERRAILDOIRAKO TALDEEN ARDURADUN KOORDINATZAILEAK

Mertxe Aldasoro, Maria Victoria Apellaniz, Matias Becares, José Luis Casado, Susana Corral, Tomás Díaz de Guereñu, Luis Alfonso Espariz, Nazario Feliz, Kepa Fernández de Arroyabe, José Andrés Gabilondo, Julián Gubia, José Ramón Guerenabarrena, Cesar Guzman, Mitxel Izal, Jesús María Landazábal, Puri López de Armentia, Félix López de Munain, Marian López de Munain, Alfonso Lourido, Rosa Manso Elexalde, María Asun Ochoa Ortiz, Mª Carmen Pérez de Arrilucea, Elena Ramos, Jaime Rubias, José Manuel Simón, José María Saenz, Antonio Vila, Manu Zabala

Ia 2022aren amaieran hil zen hamarkada batez baino gehiagoz erakundeko diruzaina izan zena. Oroimen eta omenaldi hunkigarria eskaini zitzaion lanean maitasunez eta dedikazio osoz jardun zuen **Vicente Melón Blancori.**

**Francisco Centeno** hamahiru urtez aritu zen buru-belarri lanean Elikagaien Bankuan. Erantzukizuneko karguak izan zituen, besteak beste lehendakariordea, eta indarrak ahuldu zitzaizkionean erakundea utzi zuen. Aurtengo maiatzean hil zen, baina haren oroitzapenak gure artean iraungo du.

Arabako Elikagaien Bankuari boluntario gisa denbora luzean bere onena ematen aritutako bi lankide maitek amaitu zuten beren lan aktiboa: **Juan Gallardo**, FESBALen urrezko bereizgarriarekin saritua, eta **Julián Gubia**. "Eskerrik asko" zuen lankidetza bikainagatik.



# BALIABIDEAK

## ARABAKO GIZARTE LAGUNTZAILEA DUGULA

# Gizartearekin etengabe harremanetan, haren babesa eta laguntza jasotzen

## Sentsibilizatzen

2022. urtean, ikastetxeetako hitzaldiei ekin zaie berriro, ikasleak Arabako Elikagaien Bankuak lortu nahi dituen balioetan sentsibilizatzen jarraitzeko, bereziki, elkartasunari eta elikagaien xahutzearen aurkako borrokari buruzkoak.

Horretarako, hitzaldietarako erabiltzen diren materialak eguneratu dira, eta parte-hartze handiagoa eman zaie.

Aurten lanketa ikastetxe hauetan egin da: Virgen Niña, Urkide, Olabide, Vera Cruz, Marianistak, Fabian Legorburu (Laudio), San Prudentzio, Sagrado Corazón-Karmelitak, Sagrado Corazón-Corazonistas, Judizmendi, San Maria – Nazareth, Unamunzaga (Rivabellosa) eta Francisco Vitoria Institutua

**1.084 ikaslek** hartu dute parte.

## Informazioa zabaltzen

Tokiko komunikabideetan eta sare sozialetan erakundearen jarduerari buruzko prentsa-oharrak, txostenak eta erreportajeak... zabalduz.

Web orri interaktibo bat mantenduz (https://bancoalimentosaraba.org/).

Eduki sozialeko artikuluak (El Rincón solidario) aldizka Correo egunkarian argitaratuz.

## Entitate eta erakundeekin akordioak eginez

**Vital Fundazioa:** Urteko proiektu orokorrei eta berariazkoei laguntza ekonomikoa ematea, hala nola materialak erostea, sustapen-kanpainak... 2022ko Bilketa Erraldoiaren informazio-kanpaina antolatzea. Ekintza solidarioetan sartuz, hala nola: "Artea artea baino askoz gehiago da" lehenengo Enkante Solidarioan eta Vital Eguneko Gau Martxan.

**Gasteizko Udala:** Urteko diru kopuru bat esleitzea eta Gizarte Laguntzako Zerbitzuen bidez onuradunak baloratzeko lanak egitea.

**Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia:** Dirulaguntza izendunen bidez urteko aurrekontuetan sartzea.

**Erakundeak, Gizarte Laneko profesionalen bidez onuradun izan daitezkeenak identifikatzeko zerbitzuak ematen dituztenak.** Horien artean:

- Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartea
- Euskal Herria eta Ekuadorreko Elkartasun Elkartea
- Berakah programa, CEAR, ADSIS Fundazioa
- Itaka-Eskolapioak Fundazioa, Artzeniegako Udala
- Kuadrillak: Añana, Kanpetzu-Arabako Mendialdea, Agurain, Gorbeialdea
- Laguntza Elkartea (Amurrio)

## Elkartasunezko ekitaldiak eta kanpainak sustatuz

Horrelako ekimenak asko ugaritu dira eta adibide gisa hauek aipa ditzakegu:

- Gurasoak-San Viator Abesbatza eta Bapo Estereo laukotearen kontzertua
- Caixa Fundazioa "Elikagairik gabeko etxerik ez" kanpainan
- Andre Zuriaren jaietan Basatiak eta Okerrak Blusen Koadrilak
- Vital Eguneko Gau-Martxa (Vital Fundazioa)
- Saltxitxa solidarioa Comunion herrian
- Hockey solidarioa
- Altafit gimnasioko Potetxoaren trena

## Ikastetxeetan jasotzen

Elikagaiak biltzeko kanpaina txikiak Milagrosa ikastetxean (Laudio), Rivabellosako Unamunzaga ikastetxean, Francisco de Vitoria institutuan eta Corazonistas ikastetxean (Lehen Hezkuntza). **Guztira 1.258 kg.**

## Elkarte, enpresa eta erakundeen dohaintzak jasoz...

Askoren artean, hauek:

Maeztu eta Antoñanako Herri Batzordeak, Arabako Abokatuen Elkargoa, San Inazio futbol taldea, Gasteizko Helen Doron Akademia, "No surrender Road Bastards" Motozale Taldea, Curves Gimnasioa, Michelin Pneumatikoak, Gatz Harana Fundazioa, San Mateo parrokiko Sendotza taldea, Los Angeles parrokiko Scout Taldea, Marca Irratia, Aldabe Gizarte Etxea, Crash Comic Fanzinea, Jonathan eta Iñigo (kale musikariak), XPO Logistika-Gasteiz, Indar Baskonia, Ariznabarra Egoitza, Araski Saskibaloi taldea, Gasteiz Gaztetxea, Eltziegoko San Andres Kofradia..

## .... eta, era berean, solidarioak gara beste behartsu batzuekin, hala nola:

**Lesbos Uhartean diren Errefuxiatuekin**, 6.709 elikagai kilo Zaporeak Elkartearen bidez bidaliz.

Halaber Ukrainako gerrako kaltetuei 8.651 elikagai kilo bidali dira haur eta helduentzat, U**kraina-Euskadi elkartearen bidez.**




# 2022ko BILKETA ERRALDOIA

azaroaren 25-26an

ARABAKO ELIKAGAIEN BANKUA

# 324.472 €

## Urte honetan laguntza etengabean, eta iraunkorrean jasotakoak, baita jarraitutasun eta uste sendoak, urte zail honi aurre egiteko itxaropena elikatzen du.

Pandemiaren ondorioz azken urteetan izandako gorabeheren ondoren, "elkartasunaren festa" deiturikoa elikadura-saltokietara itzuli zen, eta berriro ere agerian geratu zen Arabako biztanleen babesa izan dezakegula. Azken hiru urteotan, erakundea mantentzeko laguntza ez da desagertu, kontrakoa baizik, nabarmen igo da, baina emate hori azaroko azken astean azaleratu ahal izan da.

Pandemiaren aurreko edizioetan ohikoa zena hein batean berreskuratuz, hau da, elikagaiak zuzenean bilduz, berriro gozatu ahal izan da kaxa-trajeriaz, janari-gurdiz eta supermerkatuetako ateetan zeuden "txaleko urdinez". Bildutakoaren azken zenbatekoari dagokionez, oso pozik senti gaitezke. Elikagaiak, bonu bihurgarriak eta dirua batuta, **324.472 €**-koa izan da.

Bankuak eskerrak eman nahi dizkie kanpaina babestu duten guztiei, emaileei, supermerkatuei eta komunikabideei, besteak beste; horrez gain, aitorpen berezia egingo zaie merkataritza-guneetan herritarrei arreta eman dieten ia seiehun boluntarioei eta hogeita hamar koordinatzaileei.




Nahiz eta egoerak etsigarria dela pentsatzeko adinako itzalak izan, espero dugu ekarpen horiek eta hurrengo hilabeteetan gertatuko direnek egungo proiektuei eustea, emarien kalitateari eutsiz. Zailtasunetan beharrezkoena itxaropena elikatzea da, zerbaitek zentzua duenaren ziurtasuna, nola gertatu den alde batera utzita. Ez da itxaropen huts bat, baizik eta oinarri onenekoa: dohaintza-emaileen laguntza, partikularrena zein erakundeena, eta boluntarioen lana, proiektuari eusten jarraitzeko eta arazo benetan itzel bati erantzun egokia emateko.

Guztiei eskerrak emateko garaia da, eskuzabaltasunagatik eta pobreziaren amildegira botata daudenen alde egindako lan desinteresatuagatik. Etsipenari irmotasunez aurre egiteko garaia da.

KONPARAZIO-DATUAK

| | Elikagai Kg(*) | Bonu bihurgarriak | Dirua | **GUZTIRA** |
|---|---|---|---|---|
| **2019** | 139.696 kg / 247.261 € | 49.791 € | 3.500 € | **300.553 €** |
| **2020** | 10.106 kg / 17.887 € | 275.920 € | 91.547 € | **385.354 €** |
| **2021** | | 167,505 € | 69.280 € | **236.785 €** |
| **2022** | 49.409 kg / 87.454 € | 149.038 € | 87.980 € | **324.472 €** |

(*) Kilo Bakoitzaren balioa: 1.77€

# Elikagaiak biltzen

| JATORRIEN ARABERA | 2021 | | 2022 | |
|---|---|---|---|---|
| | Kg | % | Kg | % |
| Nekazaritzako elikagaien industria emariak | 1.000.404 | 47,88 | 831.468 | 43,17 |
| Arabako Elikagaien Bankuak dohaintzen eta bonuen funtsekin egindako erosketak | 450.380 | 21,56 | 557.624 | 28,95 |
| Beste Elikagai Bankuetatik datozenak | 416.480 | 19,93 | 294.838 | 15,31 |
| Fruta eta Barazkien Programa (Nekazaritza Ministerioa) | 125.070 | 5,99 | 115.839 | 6,01 |
| Kanpainak elkarteetan, enpresetan, ikastetxeetan... | 48.648 | 2,33 | 43.412 | 2,25 |
| FESBALetik (Elikagaien Bankuen Federazioa) jasotakoak | 47.161 | 2,26 | 24.318 | 1,26 |
| Bilketa Handian eta dendetako beste kanpaina batzuetan lortutakoak | 1.283(*) | 0,06 | 58.351 | 3,03 |
| **GUZTIRA** | **2.089.424** | **100.00** | **1.925.850** | **100.00** |

**(*): Kanpaina honetan, dohaintza elikagai bihur zitezkeen bonuak erosita egin zen**

Oharra: **Europar Batasunaren Elikadura Laguntzarako Planetik 93.407 kg** jaso dira (lekalea, pasta, kontserbak, esnea eta galletak).

| ELIKAGAI MOTAREN ARABERA | 2021 | | 2022 | |
|---|---|---|---|---|
| | Kg | % | Kg | % |
| Alkoholik gabeko edariak | 449.389 | 21,51 | 318.707 | 16,55 |
| Esnekiak eta arrautzak | 443.344 | 21,22 | 413.248 | 21,46 |
| Frutak eta barazkiak | 399.504 | 19,12 | 336.365 | 17,47 |
| Sailkatu gabe (supermerkatuetan bildutako produktu freskoa...) | 300.074 | 14,36 | 275.069 | 14,28 |
| Elikagai lehorrak (lekaleak, pasta...) | 107.501 | 5,15 | 150.708 | 7,83 |
| Kontserbak | 88.680 | 4,24 | 110.406 | 5,73 |
| Higienea eta garbitasuna | 26.448 | 1,27 | 25.696 | 1,33 |
| Olioak, koipeak eta gehigarriak | 25.611 | 1,23 | 46.012 | 2,39 |
| Gosariak (ogia, galletak, kakaoa, zerealak...) | 12.764 | 0,61 | 62.368 | 3,24 |
| Haurren elikadura | 6.102 | 0,29 | 10.520 | 0,55 |
| **GUZTIRA** | **2.089.424** | **100,00** | **1.925.850** | **100.00** |

2022an, elikagaien kalitatea eta propietateak hobetzen saiatu gara, adituek "dieta osasungarri eta orekatu" gisa adierazten dituzten gomendioetara hurbilduz. Bestalde, haurrentzako produktuen beharraz jabetu gara eta horiek erosteko ahalegin handia egin dugu, prezio altuak baitituzte. Lerro hauetan honako hauek nabarmentzen ditugu:

- Ia **%5eko jaitsiera** edarietan (freskagarriak, zukuak...)
- "Gosari" taldetik **hartutako kiloak** biderkatu dira (ogia, galletak, kakaoa, zerealak...)
- Aurreko urtean baino bi **aldiz olio** gehiago eskaini da. Haurren elikadura **bikoiztu** egin da
- Barazki eta arrain-kontserbak %1,5 hazi dira, eta elikagaiak %2,6

# Diru dohaintzak




| | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **717.304 €** | **568.484 €** | **553.192 €** |

(1): 2022an bildutako bonu kantitate txikiagoa justifikatu daiteke aurtengo Bilketa Handian ere elikagaiak eman zirelako, eta hori ez zen gertatu aurreko bi urteetan

(2): Ez dira hemen zenbatzen Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundiaren emariak, ez eta Gasteizko Udalak Jundiz eta Brasil kaleko pabiloien 50.000 euroko urteko errenta kobratu gabe uzten duena.

## EMARIAK EGITEKO ERAK:

- VISA txartelaz:

https://bancoalimentosaraba.org/donaciones-economicas/

- BIZUM bidezko ordainketa, 00025 kodea erabiliz
- Banku Transferentzia kontu hauetara:

KUTXABANK: ES58 2095 3153 6191 1448 4071

LABORAL KUTXA: ES72 3035 0099 7509 9011 1111

LA CAIXA: ES74 2100 1419 0102 0019 2118

DOHAINTZA GUZTIAK ZERGA GOI-ARINTZEA DUTE (2022an %45a)
ZIURTAGIRIA HEMEN ESKATU:
https://bancoalimentosaraba.org/donaciones-economicas/






# Elikagaien BANAKETA

## NORTZUK DIRA GURE ONURADUNAK

# Elikagaiak gehien behar dituztenei banatzen

## Nortzuk dira onuradun

- Beharrean direla frogatzen dutenak aldiro jaki multzoa jasotzen dute, eguneroko elikadurarako.
- Hori ematen zaie gizarte langile profesionalek onargarritzat hartu dituztenak, izan erakunde publikoko profesionalak edo Elikagaien Bankuarekin hitzarmena duten erakunde pribatukoak.
- Behar-egoeran dirauten bitartean jasotzen dute, jarraipeneko azterketa eta balioztatzeak ikuskatu ostean.

## Nolako banaketa

- **Banaketarako 29 talde laguntzaile.** Beren egoitzan Bankuak erabakitako familiei banatzen diete.
- **Kontsumoko 19 gune.** Egunean kontsumitzeko jakiak jaso eta harrera-leku, zahar egoitza eta jantoki sozialetara eramaten dituzte.
- **Elikagaien Bankuak Brasil kaleko egoitzan** behar larrian direnei zuzenean ematen die jaki sorta. Gerora ematen jarraitzeko lehen aipatutako erakunde laguntzailetara bideratuak izaten dira.

### Elikagaien banaketa erakunde, pertsona eta familien arabera

| | 2020 | | 2021 | | 2022 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Norbanakoak | Familiak | Norbanakoak | Familiak | Norbanakoak | Familiak |
| Banaketa taldeak | 4.391 | 1.516 | 3.194 | 1.092 | 3.659 | 1.317 |
| Kontsumo guneak | 707 | - | 461 | - | 383 | - |
| Brasil kaleko egoitzan (1) | 1.997 | 674 | 1.650 | 553 | 1.897 | 635 |
| **OROTARA** | **7.095** | **2.190** | **5.305** | **1.645** | **5.939** | **1.952** |

(1): Egoera larrian behin-behinean emateko

| Eskualdeak | Auzoak | Pertsonak | Portzentaia |
|---|---|---|---|
| **Iparraldea** | Pilar – Gazalbide – Zaramaga - Arriaga/Lakua - Abetxuko – Ipar-mendebaldea Landa eremua | 629 | 25,66 % |
| **Erdigunea** | Alde Zaharra – Zabalgunea – Lovaina – Coronación | 585 | 23,86 % |
| **Mendebaldea** | Txagorritxu – San Martin – Ariznabarra – Ali / Gobeo – Sansomendi – Zabalgana | 548 | 22,35 % |
| **Ekialdea** | Santiago – Arantzabela- Aranbizkarra – Arana – Desamparados – Judizmendi – Santa Luzia | 406 | 16,56 % |
| **Hegoaldea** | Anglo – Adurtza – San Cristobal – Mendizorrotza – Hego-aldea Landa eremua – Aretxabaleta | 283 | 11,54 % |



# LORPENAK

## ASKO EGINDA ETA ASKO EGITEKO

# 2022

## Banatutako elikagaien kalitate dietetikoa eta nutrizionala hobetu dugu

• Banatz-errazak diren **elikagai proteinikoak** sartuz (oilasko haragia, barazkiak eta arrain izoztua) eta elkarteei material logistikoak emanez, behar bezala banatzeko.

• Familiei **haurrentzako produktuak** (esnea, pixoihalak, haurrentzako ontziratuak...) emanez, bi urtetik beherakoei laguntzeko beharrezko direlako.

• Nutrizio eta energia aldetik oso kalitate ona duen elikagai bat, fruitu lehorrak, **ohiko dietan** sartuz.

• Norberaren **garbitasuna hobetzea sustatuz**, aldian behin garbiketarako, osasun-babeserako eta hilerokorako produktuak emanez...

## Banatutako kopurua handitu egin dugu

2022. urtean, Arabako Elikagaien Bankuak **345 kg** elikagai eman dizkio Banaketa-Elkarteen onuradun bakoitzari. Zifra hori Espainiako pertsona/etxe bakoitzeko urteko elikagai-kontsumoarekin alderatuz gero, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren datuen arabera, kontsumitutako **elikagai-kopuruaren %58a** ematen dugula ondoriozta dezakegu.

## Ingurumena hobetzen lagundu dugu, jasangarritasuna bultzatuz

• Unibertsitatearen eta beste erakunde ofizial batzuen laguntzarekin kalkulu zehatza egin duten beste banku batzuetan banatutako elikagaien kopuruekin alderatuta, zenbatetsi dezakegu elikagaien aprobetxamenduak, bestela hondakinak izango liratekeenak, guztira 2022an (BEG) Berotegi-Efektuko Gasen **2.394 tona CO2** atmosferara isurtzea saihestu egin zela.

• Horrez gain, bilketa eta ontziak hautatzeko sistema martxan jarriz, jasotzen dugun ia guztia birziklatu eta industriarako lehengai aprobetxagarri bihurtzen dugu. Horrek esan nahi du urtean **5.500 kg kartoi eta 650 kg plastiko** aprobetxatzen ditugula, horiek tratatu eta ondoren aprobetxatzeaz arduratzen den enpresa bati ematen dizkiogula.

## Gastua elikagaiak erostera bideratzen saiatu gara

Austeritate-politika eta gastu operatiboak aurrezteko politika mantentzen jarraitzen dugu. Azken hiru urteetan, banatutako elikagai-kilogramo bakoitzeko gastua **5,96 zentimokoa** izan da. Bestela esanda, Bankuak jasotzen duen euro bakoitzeko, lau zentimo erabiltzen ditu funtzionamendu-gastuak finantzatzeko, hala nola lokalen alokairua, argia, berogailua, elikagaiak biltzeko eta banatzeko ibilgailuentzako erregaia, telefonoa, aseguruak eta abar.

# 2023

## Zailtasunekin eta zalantzekin, baina irmo eta itxaropenez

Zailtasunak, aurreikuspenen arabera, onuradunak 4.000 pertsona inguru ugaritzeagatik eta inflazioaren ondorioz elikagaien kostua handitzeagatik sortzen dira.

Pertsona horiei, heldu eta haurrei, gaur egun ematen zaien poltsari eusteak 740.000 €-ko gastua eragiten digu urtean, eta horri 180.000 € inguru gehitu behar zaizkio funtzionamendu-gastuetan. Hau da, 2022an lortutako kopuruari eta kalitateari eusteko, **2023an 920.000 €** behar ditugu.

## Gure esku dago, edo proiektuak murriztu edo ezabatu beharko ditugu?

Ez da erraza, baina ziur boluntarioen lanarekin eta partikularren, enpresen, fundazioen, elkarteen eta erakunde publikoen laguntzarekin... **lortuko dugula.**

# ERANSKINAK



# Ustiapen kontua 2022

| GASTUAK | | SARRERAK | |
|---|---|---|---|
| Elikagaiak eta bestelako erosketak | 659.934,28 | Supermerkatuen bonoak | 258.876,05 |
| Alokairu Errentak | 11.069,57 | Aurreko urtealdietako diru-sarrerak | 115.560,00 |
| Konponketak eta mantentze-lanak | 11.509,16 | Emari Pribatuak | 183.840,76 |
| Zerbitzu profesionalak | 15.451,62 | Fundazioen dirulaguntzak | 60.114,03 |
| Garraioak | 2.017,07 | Enpresen dohaintzak | 40.464,47 |
| Banku zerbitzuak | 311,74 | Udalen dirulaguntzak (*) | 25.344,96 |
| Erregaiak | 22.653,98 | Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza (*) | 19.112,07 |
| Argi-indarra, Gasa, Ura | 17.728,75 | Aldundiaren dirulaguntza/I.F.B.S. (*) | 12.000,00 |
| Telefonoa | 3.447,73 | Fesbal/ C.E.E. | 40.546,13 |
| Bidaiak | 1.463,05 | | |
| Federazioen kuotak | 834,60 | | |
| Garbiketa | 6.827,06 | | |
| Aseguru-primak | 5.031,43 | | |
| Publizitatea | 8.321,04 | | |
| Zergak | 1.888,68 | | |
| Bulegoko materiala | 2.458,65 | | |
| Beste gastuak | 5.828,69 | | |
| Langileen gastuak | 24.936,26 | | |
| Seguru Sozialak | 7.350,20 | | |
| Amortizazioak | 24.851,54 | | |
| **GUZTIRA GASTUAK** | **833.915,10** | **GUZTIRA SARRERAK** | **755.858,47** |

(*) ez dira kontuetan jarri Jundizko 1 poligonoa eta Brasil kaleko lokalaren alokairuak, Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udalaren jabegoa izanik kobratzen ez dutelako (urtean 50.000 euro inguru)

| | |
|---|---|
| GUZTIRA SARRERAK | 755.858,47 |
| GUZTIRA GASTUAK | 833.915,10 |
| **EMAITZA** | **-78.056,63** |

# 2022

# Esker ona ematen diegu

## "Daudenak denak dira, baina ez daude diren guztiak..."

Emaileak gure jardueraren ardatza dira. Bere eskuzabaltasunari esker, baliabide faltan diren asko eta askori lagundu geniezaieke. Guretzat akuilagarri bikaina dira gizarte beharren laguntze-bidean jarduteko. Eskerrak guztioi. Badakigu denetara heltzea ezineko zaigula, baina zuek gabe ez ginateke inora helduko.

## Industria eta elikadura enpresak

AGRALCO S. COOP.
AGRICULTURA Y ENSAYO
ALAVESA DE PATATAS S.A.
ALIMER (ALIMENTOS DEL MEDITERRANEO)
AQUADEUS S.L.
ARAGONESA DE PIENSOS S.A.
ARTEPAN
AVICOLA TOLOSA
BACALAO GIRALDO S.L.
CAFES FORTALEZA
CAFES LA BRASILEÑA
CAMPO VEGA S.A.
COCINA CENTRAL MAGUI S.L.
COLONIALES MENENDEZ Y CIA, S. L.
CONGELADOS BEDARONA S.L.
DIMIDULCES IBERIA S.L.
DISTRIBUCION GRAL ALAVESA SA (DIGASA)
DISTRIBUCIONES GOBEA S.COOP.
EKOTARRIKO S.COOP.PEQUEÑA
EL PATRIARCA-VITORIA
ELABORADOS BERGONDA S.L.
EUROPASTRY
GANADEROS DE AIALA S.COOP.
GIRALDO COCINAMOS PARA TI S.L.
GRUPO AMUTIO
GRUPO BIMBO
GRUPO DYNASOL
HORNO TUESTA
KAIKU KM 0 VITORIA
LABORATORIOS BROMOTOLÓGICOS ARABA S.A.
LACTURALE
LOGISTICA BERALKO S.L.
LOREZTI S.C.
NATUBER TRANSFORMADOS DE LA PATATA
NEIKER TECNALIA
OSCAR LOPEZ LA CALLE (BOLIBAR)
PASTELERIA TXISTU
PATATAS MELÉNDEZ S.L.
PATURPAT S. COOP
PEPSICO-IBERIA
RAMIRO (AÑASTRO)
S.A.T. VERSOL 108 CV
SAGARMINA ECOLÓGICA

## Beste enpresa eta industriak

AC HOTEL GENERAL ALAVA
AGROMOTOR
ALETXA 2000 ASESORES
ALMACENES CAYPE
ARABA ASCENTIUM S.L.- IROMAN
AUTOBUSES ALEGRIA
AUTOESCUELA CLAXON
BAR RESTAURANTE BOKADOS
BAR TXIKI
BK CONSULTING ABOGADOS
COHER DISTRIBUCIONES GASTEIZ SLU
COLEGIO ABOGADOS DE ALAVA
COMERCIAL SAN PRUDENCIO
COMUNICACIONES Y OCIO INTERACTIVO S.L
D.H.L. EXPRESS SERVICE POINT DE ARTANZA
DACHER SPAIN LOGISTICS S.A.
ESCUELA HOSTELERIA DE GAMARRA
ESTUDIOS URIARTE
EXCLUSIVAS LANCIEGO
FADECO
FARMACIA ACHAERANDIO
FARMACIA MONTEAGUDO
HOTEL GOBEO PARK
LAUTADAKO ARABAKO INDUSTRIALDEA
LORAMENDI S. COOP.
MEGATECH INDUSTRIES DE AMURRIO S.COOP
MICHELIN ESPAÑA PORTUGAL S.A.
NORTEGAS ENERGIA S.L.
NOVALTIA
ORHELA INVERSIÓN SL
OYEMIKEL S.A
PASTORAL PENITENCIARIA ZABALLA
PUBLICIDAD BELL
R.P.K. S. COOP.
RINOR S.L.
SENDATEK S.L.
STEF
TRABAJADORES EUROWAG-FUNDACION VIA
TRANSPORTES URIARTE
TUVISA
UNILEBER ESPAÑA
VAYVEN DELIVERY VITORIA
WINCHE REDES COMERCIALES
WINDADUANCE S.L.
XPO LOGISTICA

## Supermerkatu konpainiak

ALCAMPO
ALDI
ALIMENTACIÓN ISABELLE
BM SUPERMERCADOS
CARREFOUR
CARREFOUR GORBEIA
DIA
EL CORTE INGLÉS
EROSKI
LECLERC
LIDL
MAKRO
MERCADONA

## Kultur, aisialdi, hezkuntza arlokoak, kirol eta lagunarte taldeak...

ACADEMIA HELEN DORON ENGLISH
ARASKI BALONCESTO
ASOCIACIÓN ERAKUSMETA
ASOCIACIÓN ZAPOREAK
CAJA LABORAL POPULAR
CARITAS
CEIP IKASTOLA TOKI-EDER
CEIP IZARRA HLHI
CEIP UNAMUNZAGA (RIVABELLOSA)
CEIP ZABALGANA
CENTRO CIVICO ALDABE

CLUB DE FUTBOL SAN IGNACIO
COFRADIA SAN ANDRÉS APÓSTOL (Elciego)
COLEGIO LA MILAGROSA
COLEGIO PUBLICO IZARRA
CORAL GURASOAK-SAN VIATOR
CPEIPS FEDERICO BARAIBAR
CPEIPS FRANCISCO DE VITORIA
CPEIPS MENDIZABALA
CPEIS ESCOLAPIAS
CPEIS ESCOLAPIOS
CPEIS INMACULADA CONCEPCION
CPEIS MERCEDARIAS
CPEIS NAZARETH
CPEIS NCLIC
CPEIS PADRE RAIMUNDO OLABIDE HLBHIP
CPEIS PRESENTACIÓN DE MARÍA
CPEIS SAGRADO CORAZÓN – CARMELITAS HLBHIP
CPEIS SAGRADO CORAZÓN - CORAZONISTAS HLBHIP
CPEIS SAN PRUDENCIO
CPEIS SAN VIATOR
CPEIS URKIDE HLBHIP
CPEIS VERA CRUZ HLBHIP
CPEIS VIRGEN NIÑA
CPES EGIBIDE BHIP
CUADRILLA DE BLUSAS BASATIAK
CUADRILLA DE BLUSAS OKERRAK
EIS LOS HERRAN
FUNDACION ESTEBAN LIZARRAGA&VICTORIA ECHEVERRIA(ADANIA)
FUNDACION LA CAIXA
FUNDACION VALLE SALADO AÑANA
FUNDACION VICENTE FERRER-BRAZADAS SOLIDARIAS
FUNDACIÓN VITAL
GASTETXE VITORIA
GIMNASIO ALTAFIT
GIMNASIO CURVES VITORIA SANTA BÁRBARA
GRUPO DE MOTEM "NO SURRENDER ROAD BASTARDS"
GRUPO EDUCADORES DE CALLE
GRUPO ESKAUT – LA ESPERANZA
GRUPO ESKAUT- LOS ANGELES
HOSPITAL VHITAS-VITORIA
IKASTOLA TOKI-EDER
INDAR BASKONIA
PARROQUIA SAN MATEO
RESIDENCIA MAYORES ARIZNABARRA
UNIDAD MATERNO TXAGORRITXU

## Erakunde Publikoak

AYUNTAMIENTO VITORIA-GASTEIZ
JUNTA ADMINISTRATIVA ANTOÑANA
AYUNTAMIENTO ALEGRIA/DULANTZI
AYUNTAMIENTO ARRAZUA-UBARRUNDIA
AYUNTAMIENTO DE ELBURGO
CENTRO PENITENCIARIO DE ARABA/ÁLAVA
DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA (I.F.B.S.)
GOBIERNO VASCO
JUNTA ADMINISTRATIVA DE EGUINO
JUNTA ADMINISTRATIVA DE MAESTU

## Komunikabideak

CADENA COPE
CADENA SER
DATO ECONÓMICO
DIARIO BERRIA
DIARIO DE NOTICIA DE ALAVA
EL CORREO
EUSKAL TELEBISTA
GASTEIZ HOY
ONDA CERO
RADIO GORBEA
RADIO NACIONAL DE ESPAÑA
RADIO VITORIA – EUSKAL IRRATIA

## Jakien banaketa taldeak

ASOCIACIÓN ALAI (Salvatierra-Agurain)
ASOCIACIÓN ALAVESA DE TRABAJO SOCIAL-AGLE
ASOCIACIÓN BENÉFICO-SOCIAL- RIO DE VIDA
ASOCIACIÓN COLOMBIA-EUSKADI
ASOCIACIÓN DE ACCIÓN COMUNITARIA-COMPARTIR
ASOCIACIÓN DE AYUDA A PERSONAS NECESITADAS - REFLEJOS DE ESPERANZA
ASOCIACIÓN DE RESIDENTES AFROAMERICANOS
ASOCIACIÓN DE VOLUNTARIADO DULABEA (Alegría-Dulantzi)
ASOCIACIÓN GRUPO DE AYUDA Y ACOGIDA - LAGUNTZA (Amurrio)
ASOCIACION MANÁ
ASOCIACIÓN SEMBRANDO SEMILLAS DE AMOR
ASOCIACIÓN SOCIOCULTURAL MAURITANIA-EUSKADI - ASME
AYUNTAMIENTO ARTZINIEGA
EMMANUEL CRISTIANA DE APOYO SOCIAL
FUNDACIÓN SAMAN RIVIERE
GAMBIA EUSKADI
GAO LACHO DROM LABASTIDA
GAO LANCHO DROM VITORIA
GRUPO MAYORES DE TELEFÓNICA
IGLESIA EVANGÉLICA BAUTISTA
ITAKA-ESCOLAPIOS
MBOOLO ELKARTEA
MISIÓN EVANGÉLICA NUEVA VIDA
PARROQUIA LOS DOLORES
PARROQUIA SAN PABLO
PARROQUIA SANTA CLARA
PROGRAMA BERAKAH-PARROQUIA SANTA MARÍA
SERVICIOS SOCIALES DE AÑANA ESTE y AÑANA OESTE
TRESNAK SOCIAL GLOBAL
UNIÓN Y APOYO DEL HABLANTE PULAR "HAALY-PULAR"

2022 Urteko Txostenaren euskarazko itzulpena: Patxi Otamendi

Mila esker laguntzaileei, izendun eta izengabeak, beren emari ekonomikoekin ahalbidetu dutenak Arabako Elikagaien Bankuak arabar gizartearen behartsuenen elikadura gabezien alde duen ekimenean etenik gabe jarduteagatik.

**ESKERRIK ASKO!**

# BAZTER SOLIDARIOA

EL RINCÓN SOLIDARIO



## RECOGER PARA DAR

EL BANCO DE ALIMENTOS HA RECOLECTADO EN LOS CUATRO ÚLTIMOS AÑOS 7,2 MILLONES DE KILOS DE COMIDA PARA ENTREGARLA A LOS MÁS NECESITADOS

EN EUSKADI SE DESPERDICIAN 350.000 TONELADAS DE COMIDA AL AÑO

EL CORREO
INFORMACIÓN CON VALOR

C/ Uzbina, 24 - Pb 5A - Polígono Jundiz, Vitoria-Gasteiz. | 945 213 233 | www.bancoalimentosaraba.org

2022. Ekaina

EL RINCÓN SOLIDARIO



## STOP AL DESPILFARRO DE COMIDA

EL BANCO DE ALIMENTOS DE ÁLAVA COMBATE EL DESPERDICIO DE COMESTIBLES

EN EUSKADI SE DESAPROVECHAN 142 KILOS POR PERSONA Y AÑO

EL CORREO
INFORMACIÓN CON VALOR

C/ Uzbina, 24 - Pb 5A - Polígono Jundiz, Vitoria-Gasteiz. | 945 213 233 | www.bancoalimentosaraba.org

2022. Iraila




2022. Urria




2022. Abendua